



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko ekainaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko ekainaren lauan, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CHAMALBIDE Corinne.

Deialdiaren eguna : 2024ko maiatzaren 31

Afitxatze eguna : 2024ko maiatzaren 31

1. ERABAKIA: HONDAKIN ABANDONATU ETA BARREIATUEN KONTRA BORROKATZEKO LAGUNTZA HITZARMENA EUSKAL ELKARGOAREKIN

(8.8 nomenklatura)

Ekoizleen erantzukizun zabalaren betetzeko, produktuak enbalaturik lehenik merkaturatzen dituzten ekoizle, inportatzaile edo pertsona arduradunek horretarako egiaztapena duen eko-organismo baten esku utz dezakete etxe-enbalajeen hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren ardura. Organismo horrek bere bazkideengandik eskuratzen dituen ekarpenekin diruzta ditzake abandonatuak izan diren etxe-hondakinen garbitzea bermatzen duten lurralde erakundeak.

2022ko irailaren 30eko ordenantza batek, Citeo egituraren egiaztapenarentzako baldintza-agiria eguneratu zuen eremu publikoan abandonatu diren hondakinen garbitzeko eta murrizteko gastuak kontuan hartzeko xedez (Baldintza-agiriaren IV.7 artikulua). Kontuan hartu dira soilik egiturak eskuratu duen egiaztagiriaren arabera hondakin barreiatuen gastuak. Legez kanpoko hondakin meta abandonatuak ez dira gastu horien esparruan sartzen.

Horretarako, eta Ekoizleen Erantzukizun Zabaleko Sailaren batzordean ordezkatuak diren lurralde erakundeekin hitzarturik, Citeo-k hitzarmen eredia osatu du: hondakin barreiatu abandonatuen kontra borrokatzeko laguntza-hitzarmena, hondakinen garbitzeko eskumena duten herri edo berezko fiskalitatea duten herri elkargoei proposatua, beste erakunde publikoekin bereizketa eginez.

Bertako erakundeak, berriz, ordezkatzeko duen taldearen ekintzaren esparruan, hondakin abandonatuak garbitzea, eta ingurumeneko etxe-hondakinen abandonatzearen prebentziorako informazio, komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak bermatuko ditu.

Kontuan izanik Euskal Hirigune Elkargoak interesa adierazi duela Citeo-k hondakin barreiatu abandonatuen kontra borrokatzeko aurkeztu hitzarmenarentzat, proposatu du Auzapezari baimena ematea Euskal Hirigune Elkargoarekiko talde-hitzarmena izenpe dezan, Citeo-k hondakin abandonatuen kontrako borrokan proposatu duen laguntzarentzat.

Herri Biltzarrak, deliberatu eta gero:

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 5221-1 artikulua herrien arteko lankidetzari buruzkoa;

IKUSIRIK, Frantziako Ingurumen Kodeko L.541-10 eta R.543- 53tik R.543-56rako artikulua,

IKUSIRIK, 2017ko maiatzaren 5eko ordenantza, hondakin horien kudeatzeko xedea duten eko-egituren egiaztapenari buruzkoa, Frantziako Ingurumen Kodeko R. 543-53tik R.543-65erako artikuluen arabera enbalajeen hondakinen azken muturreko arduradunak familiak direla finkatzen baitu,

IKUSIRIK, 2022ko irailaren 30eko ordenantza, 2016ko azaroaren 29ko ordenantza aldatzen duena, zeinak etxe-hondakinen saileko eko-egituren egiaztapen baldintza eta baldintza-girien xedapenak ematen baititu,

IKUSIRIK, 2017ko maiatzaren 5eko ordenantza, hondakin horien kudeatzeko xedea duten eko-egituren egiaztapenari buruzkoa, Frantziako Ingurumen Kodeko R. 543-53tik R.543-65erako artikuluen arabera enbalajeen hondakinen azken muturreko arduradunak familiak direla finkatzen baitu,

1. artikulua: Euskal Hirigune Elkargoarekiko talde-hitzarmena onartua da, Citeo-k hondakin abandonatuen kontrako borrokan proposatu duen laguntzarentzat.

2. artikulua: Auzapezari baimena eman dio Euskal Hirigune Elkargoarekiko talde-hitzarmena izenpe dezan, Citeo-k hondakin abandonatuen kontrako borrokan proposatu duen laguntzarentzat, 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra (berez luza daiteke 2028 arte).

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balizko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko ekainaren 4an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/06/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/06/11n.

